



Familia Amoris Laetitia
Año 2021 - 2022

*Klikatu
hemen!*

Familiaren urtea



CONFERENCIA
EPISCOPAL
ESPAÑOLA

*Maitasunak kolorez
betetzen du mundu grisa*

Familia, Jainkoaren Hitzaren argitan

«Norbere egitasmoak gainditzeko dituen, eusten gaituen eta gure etorkizuna oso-osorik maite dugunari ematera garamatzen egitasmoa antzematen denean agindu daiteke betirako maitasuna». AL 124



Frantzisko Aita Santuaren motibazioa

"Maitasuna bizi-emailea da beti. Maitasuna ez da bikotearen barrian agortzen; maitasunak familia sortzen du. Horrela, kristau senar-emazteek eremu publikoko grisa margotu egiten dute senidetasunaren, gizarte sentiberatasunaren, ahulenen aldeko laguntzaren, fede argitsuaren, itxaropen eraginkorraren koloreaz betez".

"Ezkontza zeinu bikaina da, Jainkoak digun maitasunaren ikonoa. Honek ez du esan nahi senar-emazteen arteko maitasunak perfektua izan behar duenik... Inor ez da perfektua, baina senar-emazteen arteko maitasuna, prozesu dinamikoa da, denboraren buruan iraun eta hobetu egiten dena. Horregatik, ezkontzak ezinbestekoa du fideltasuna, ezkontza betirako da".

"Ez izan huts egiteko beldurrik: Beldurra da oztoporik handiena Kristo eta guretzat duen bizi-egitasmoa onartzeko! Beldurraren aurrean, adi egon!".



Otoitza

Eskerrik asko, Jauna,
familia dohaintzat emateagatik,
eskerrik asko, erronka bihurtzen denean ere,
eskerrik asko, borrokan egin eta
behin eta berriz hasteko eskatzen diguzulako,
Zeu ondoan baitzaitugu beti.
Eskerrik asko, akats eta guzti,
garen bezala maite gaituzulako. Eskerrik asko, zure
begirada errukitsuari esker
egunez egun hobetzen saiatzen garelako. Arren
eskatzen dizugu
gure urratsak gida ditzazula
Zeuk jarritako bideetatik aurrera egin dezagun,
Maitasunaren gailurrera irits gaitzen.
Eman sendotasuna,
lortzeko saiakeran etsi ez dezagun
eta maitasunaren bidean ditugun lorpen txikiengatik ere
pozten jakiteko gai izan gaitzen.
Amén





Hausnartzeko

On Angel Perez Pueyo Barbastro Monzoneko gotzaina aurkezten dizuegu. "Maitasunaren edertasuna" gaia nola ikusten duen adierazten du bideo honetan.



Jardunbidea familian

Pentsa dezagun senidetasunezko zeinu bakunetan eta idatz ditzagun kolore desberdinetako txarteletan. Goizez, familiako kide bakoitzak bat hartuko du ausaz: zeinu hori egingo du egun horretan, eta aldean eramango du txartela gogoan izateko.



Sakontzeko

■ Amoris Laetitia irakurri
"Betirako" eta maitasunaren edertasuna"
Amoris laetitia, 120-164

"Emankor bihurtzen den maitasuna"
Amoris laetitia, 165-198

■ Gehiago nahi baduzu, **klikatu hemen!**

